

Ikusezintasunak berak ere ikusezina ezkutatzen duenean

Dolores Juliano (2012) *Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino*, Donostia, Gakoa-ri buruzkoa.

Olatz Dañobeitia Ceballos

Soziologian lizentziatuta, EHU/UPV
lulatxu@gmail.com

Bizitzaren erreprodukzioa posible al da egungo jendartean? Feminismotik, antropologiatik eta soziologiatik azken urteetan pil-pilean dagoen gaia dugu hau. Idazkera erraz eta zuzenaren bidez, generoa, klasea eta etnia dominazioak elkar lotu eta elikatzen direneko testuinguruetan, eta zehazki boteregabetasun horretan eta horretatik, emakume pobretuek egiten dituzten ibilbideetan barna bidaian garamatza Julianoren lanak. Hain zuzen ere, beste ekarpen aberats bat dugu irakurgai hau, egile horrek emakumeen egoera ez ikusgarriak ikusarazteko zein berraien agentzia ahalmenaz urteetan egin duen lan luze eta mardularen barruan.

Izan ere, mahai gainean egon dagoen eta lerro hauen hasieran aipatu dudan galdera hori erantzuten saiatzeko bidea egiteko aukera eskaintzen digu bere lanak: egiturazko biolentzia egoeretan, nola antolatzen da bizitza? Zein balio hartzen du bizitzak? Zein biziraupen estrategia garatzen dituzte emakumeek? Zein ondorio dituzte estrategia horiek, izan fisiko, moral, emozional zein politikoak? Erresistentziaz, kuestionamenduaz ala jazarpen egoerak berrelikatzeaz ari gara? Nolako harremanak sortzen dira botere asimetriaren bi muturretan kokatzen direnen artean? Zeintzuk dira jazarpen tresnak eta zeintzuk biziraupenerako tresnak? Eta zeintzuk bi horien arteko elkarrekintzak? Bizitzea merezi duten bizitzez ari al gara?

Hori dugu Julianok egiten digun gonbita. Zehazki, honako hau dugu bere ikerketak proposatzen digun erronka: patriarkatuaren legearen arabera jendarte kapitalistetan, emakumezkoak, azpiratze egoera anitzak direla medio, egoera ekonomiko kaxkarrenetan bizi direnak izan arren, gizonetzkoekin alderatuz, beraiek baino hein handiagoan beharrian ekonomikoei

Ankulegi 17, 2013, 113-116

Fecha de recepción: 1-IX-2013 / Fecha de aceptación: 30-IX-2013

ISSN: 1138-347-X © Ankulegi, 2013

lotutako delituen autore izan beharko luke-tela ondorioztatu badaiteke ere, horrela ez dela izan agerrarazi, eta horren zergatiak arrazoitzen dizkigu. Emakume delitugile gutxiago egoteari bilatu ahal eta ohi zaizkion arrazoi ugari aztertu eta baztertuz garatuko du bere lana, esate baterako, emakumeen delituak gutxiago zigortuak egotea. Aldiz, kontrakoa dela nabarmentzen du, bai zigor kodea emakumeei aplikatzeko orduan zein behin espetxeratuta, isolamendu erregimenak ezartzeko garaian, emakumeekiko gogortasuna ageria dela argudiatzen baitu.

Horrela bada, delitua ekidinez eta ekidin nahian, emakumeek hamaika estrategia garatzen dituztela defendatzen du. Emakumeek espetxeari dioten horrenbesteko "beldurra"ren arrazoietan arakaturaz eta horiek ulertzeko ahalegina eginez.

Ondorio bezala, egungo espetxe sistemak emakumeei esleitutako genero rolak agintzen duen mandatuak garatzea ezinezkoa egiten duela azalduko digu. Bizitzaren zaintza, mantentzea eta birprodukzioa ezinezkoa egiten dituen lekua dugula kartzela, alegia. Horretarako eskutik helduta dauden delituen eta zigorraren kontzeptuen definizioa eta ibilbide historikoa eskaintzen dizkigu, moralitate kristauarekin eta patriarkatuarekin dituzten lotura eta iturburuak aztertuz, zein egungo Zuzenbidea eta espetxe sistemak hortik edandakoak direla agerraraziz. Alde horretatik, espetxea eta kode penalak ez daudela emakumeentzat eginak esango digu. Zigortzen dena, ustezko delituaz gain, genero mandatuaren transgresioa ere badela agerian utziz, aldiz espetxeak berak mandatu horri eustea ezinezkoa egingo dutela.

Horren aurrean, alternatiba gisa, emakumeek bestelako estrategiak lehenetsi dituztela diosku, besteak beste: ikasketa edo formakuntza eremukoak; emakumeen ar-

teko elkartasun sareak; lanerako duten gaitasunaren gain-esplotazioa; laguntza instituzionalak; beraien gorputza baliatzea (izan sexu langile moduan, obulu-saltzaile moduan,...); asignatutako rol sexuala erabili, laguntza ekonomikoa lortzeko (bikotetzeak, ezkontza,...); migrazioa.

Baina Julianok dioskun moduan, gaitz txikiaren aldeko estrategia horiek ez dira beti garaile irteten, eta batzuetan "zartagine-tik irteten da txingarretan erortzeko". Espetxeratu eta giltzaperatuak direneko egoera, hain zuzen ere.

Eremu horretan kokatu daiteke Julianoren lanaren ahuldadea, agian. Izan ere, espetxearekiko beldurr, genero rolari lotutako zaintza-lanak burutu eta lotura familiarrak mantentzearen zailtasunean kokatzen du. Modu horretan, espetxea pertsonaren osasun fisiko eta mentalean eragin ezkorra duen instituzioa dela aitortu, eta berau pairatzen duten gizon eta emakumeen sare sozial eta familiarra kamusten dituela diosku. Eta egoera hori ez dutela berdin biziko gizon eta emakumeek, hain zuzen ere, genero rol eta mandatuak direla medio. Nire galdera berriz honakoa da: "hori bakarrik ahal da ba?"

Autore askok eta Julianok berak ere, partekatzen duten irakurketa dugu hau, Estatu Zuzenbideak arautu gabeko eremuak oro har emakumeentzat arriskutsuenak izan ohi direla alegia. Hau da, botere ezberdinen erabilera eta harremanak arautu eta erregulatu gabeko eremuak, biziki aproposak direla emakumeen jazarpena biderkatzeko. Izan ere, mikrobotere ezberdinen biderkatzea errazten baita holakoetan, eta testu-guru horietan eskubide eta betebeharrak bakoitzak bertan indarrez kokatzeko duen ahalmenaren arabera negoziatu ohi dira. Arbitrariotasun horrek indartsuena gailentzea ahalbideratzen duen heinean, emakumea ez

da indartsuenen aldean kokatzen ohi. Ondorioz, beraien eskubideen eta duintasunaren urraketa bizi arren, emakumeek arauak jarraitzeko eta betetzeko joera dutela, erregulazio faltak lekarkeena ekiditeko.

Badirudi Julianok ez dituela egungo Estatu Espainiarreko espetxeak arautu gabeko eremuen barruan kokatzen. Are gehiago, esango du azpiegitura, higie-ne eta tratu aldetik horren txarrak ez direla jada egun. Masifikazioa, gosea, biolentzia erakustaldiak, zikintasuna,... iraganeko, beste herrialde batzuetako, edo sortutako fikzioen parte direla, hain zuzen ere. Ez digu bere ikerketaren landa lanaren berri ematen, eta agian hor dago koxka.

Autoreak bere ikerketa honetan lantzen duen tesiarekin oro har bat natorren arren (nire preso ohi kondiziotik, besteak beste), burura datorkidan gogoeta honakoa da: ba ahal dugu daturik, espetxe barnean mikrobotere horiek garatzen ez direla esateko? Tamalez, espetxea egun askatasun galera soile-ra mugatzen dela esaterik ez dugu. Higie-ne, osasungintza eta bizi-baldintza arazoak zein biolentzia erakustaldiak gaindituztat jotzerik ez dugun modura. Espetxe langileen testigantzei leku egiteko moduan al gaude ba? Egundak Estatu Espainiarreko espetxeetan kanpo eragileak sartzeko dauden aukera ahulak aintzat hartu behar ditugu, baita horiek zein baldintzetan ematen diren ere. Emakume presoak elkarrizketatzea afera nekeza dugu, eta kontuan hartu beharrekoa da, haiek eman diezaguketen informazioan, espetxe sistemak, hertsapen aparatua den heinean, izan dezakeen eragina. Zein bitarteko erabili da asistentzia medikua aztertzeko? Ikerketa gutxi egin dira emakume preso-en osasun egoerari buruz, eta horren zergatiez gogoeta egin beharko genuke. Izan ere, ekipa medikuak norik izendatzen dituen horri

erreparatuz, medikuak espetxeko funtzionario izateak eta Barne Ministerioaren menpe egoteak dituen inplikazioak ezin dira bazterrean utzi. Horrek mediku eta presoaren arteko harreman eta elkarrekintzen ezaugarritzean duen eragina, segurtasuna osasunaren gainetik lehenesteak, osasun irteera extrapenitentziarioen eskuragarritasun eta baldintzei ekartzen diena, ez dira bigarren mailako afera. "Zaintza epaitegi penitentziarioen" autonomia aztertu al da? Salaketak espetxetik kanpora irteteko baldintzak betetzen diren ala ez jakitea ez da erraza. Horretaz gain, egungo emakume preso-en profilak eta legediak ezartzen dituen defentsa sistemak osagarriak diren ala ez kontuan hartu beharra dago, besteak beste: Presoek legediaz duten ezagupen eza, idazteko ezintasunak, epaitegiko Autoak ulertzeko zailtasunak eta abar.

Alegia, gutxi dira legediak ezarritakoa betearazten den ala ez egiaztatu edo bermatzeko kontrol eta jarraipen mekanismoak. Zehazki, espetxeko langileekiko kontrol tresna ahulek asko esan diezagukete sor litezkeen mikrobotere horiez.

Estatu espainiarra preso-eman-dako jipoi eta tratu txarren zerrendan lehen postuetan egotea datu esanguratsua da bere baitan¹. Espetxe sistema osatzen duten langile giltzari, hezitzaile, mediku, psikologo, epaitegiko epaile zein ofiziozko abokatu eta emakume preso-en arteko hizkera, harremana eta elkarrekintza bera zein beroien biolentzia simboliko karga ikertzea interesgarria litzateke bide horretan.

Asko dira plazaratu daitezkeen galderak. Itau-n hauek guztiak erantzuteko zailtasunak, oraindik orain Estatu espainiarreko espetxeko eremu ilunak gardenak bai-

¹ Kontsultatu adibidez Punto de Fuga.org (<<http://puntodefuga.org/>>).

no gehiago direla esatera narama. Kontrol tresnarik ezean eta itxitasun handiko gunea den neurrian, uste dut ez gaudela eskuragarri zein ikusgarri ez dagoen eremu oso baten existentzia ukatzeko moduan. Iluntasun horrek zaurgarritasuna eta arbitrariotasuna areagotu ditzakeen heinean, espetxe barruan bortxaketarik eta prostituziorik ez dagoela esaterik ba ahal dugu ba?

Emakumeek espetxeari lotuta izan dezaketen "atzemandako arriskua" deritzon horrek guztiak izan dezakeen eragina aintzat hartu beharra dagoela uste dut. Hortaz, Julianok espetxea ekiditeko estrategia gisa definitzen dituen horiek espetxe barruko testuinguruan berraktibatze joera egon litekeela aintzat hartzea proposatzen dut. Are gehiago, espetxe langileekiko emakumeek dituzten harreman horietan sakontzera joko nuke, horiek biziraupen estrategien baitan kokatuz, hain zuzen ere; bai eta horiek transgresiotik, kuestionamendutik ala sumisiotik zenbat eta zer duten identifikatzera eta gogotatzera ere.

Alde horretatik eta lerro hauen hasierara itzuliz, bizitzaren mantenua eta erreprodukzioa bera kolokan dauden honetan, zein

egiturazko biolentzia horrek emakumeengan eragiten dituen ondorio eta inpaktuan sakontzeko ahalegina egiten ari den honetan, oso irakurgai interesgarria eta erabilgarria/baliagarria dela deritzot. Julianok ikergaiarekiko bere motibazioa emakumeen estrategia horien ulermen eta aitortzan kokatzen du, emakumeen eta munduaren egungo status quo-a aldatzeko feminismotik duen bere konpromiso politikoan. Horrela bada, eremu ez ikusgarrian eguneroko bizitza eta biziraupena nola erresolbitzen diren ikusarazteko ariketa etengabea, aipatu gogoetak aurrera egiten jarrai dezagun lagungarri izan daitezkeela deritzot.

Eta "besteak" modura ikusteko joera dugun horiengan fokoa jartzea, gure gizarteaz gogoeta egin eta berau berpentsatzeko ariketa gisa hartzea, gonbita ederra litzateke. Batzuk kanpoan eta besteak barruan uzteko joeran, batzuk besteen bizkar bizitzeko joeran oinarritzen den antolakuntza eredu honetaz hausnarketa kritikoa egiteko aukera da zabaltzen zaigun atea. Kanpoan daudenak barrura nola sartu baino, inklusibotasun murriztean oinarritutako gizarte bideragarritasunaz gogoea kolektiboa eginez, hain zuzen ere.